

ARTEA. «Osatu gabea, akastuna, gabeziaduna eta aldi berean oparoa eta gainezkatua da nire lana», dio Badiolak

Bere obren aspaldiko bildumarik zabalena jarri du ikusgai Txomin Badiolak Bilbon

Eskultura, bideoa, argazkia eta soinua batzen dituzten instalazioekin osatua dago 'Eite txarrak', Arte Eder museoan

Mikel Kintana | BILBO

Txomin Badiolaren *Eite txarrak* erakusketa ikusteko aukera dago egunotan Bilboko Arte Eder museoan, urtarrilaren 26a bitartean. Bilbotar artista horrek 1990. urtetik gaur arte egindako obren bilduma zabalena da. Garai hartan, bere obrak aldaketa formal zein konzeptuala izan zuen.

Bartzelonako Arte Garaikideko Museoak antolatua eta Jose Lebrerok komisariatua, *Eite txarrak* erakusketa eskultura, bideoa, argazkia eta soinua barne hartzen dituen instalazioekin osatua dago. Hauek guztiak hibridazioetan eta natura ezberdineko lengoaien nahasketetan oinarritutako lan prozesu baten ondorio dira. «Erakusketa bat baino gehiago da», adierazi zuen Lebrerok erakusketa aurkeztean. Formen espezifikotasunean nagusiki errotutako lan prozesu honek, fotonobela, zinema, telebista, kontsumo musika eta komikia bezalako herri kulturaren elementuak barneratzen ditu.

Badiola 70eko hamarkadaren amaierako *euskal eskultura berria*-ren protagonistetariko bat da. Formalismoaren mugen bilaketan eta prozedura berrien eta produkzio artistikoen moduen bidez, autokritika gainditzeari ekin zion.

Euskal eskultura berriaren artisten erreferentzia nagusia, Jorge Oteiza eskultorearen ondorena eta bere gogoeta metodologikoa izan dira.

Artista bilbotarra beste iturri batzuekin ere elikatzen da. Esaterako, Godard, Fassbinder eta Pasolini bezalako zinemagileen filmak, arkitektura modernoaren historia eta eskultura modernoak, bereziki Charles eta Rey Eames eta Le Corbusier, pop artea, *club*-en kultura, abangoardia errusiarrak, Malevitx-en abstrakzioa, minimalismoa eta *underground* zinema.

Zineman eta antzerkian ohikoak diren emanaldi mekanismo batzuek jabetuta, Badiolak fikzio narratiboaren bidez eguneroko egoerak sortzen ditu. Hau da erakusketan era literal batean ezartzen dena; eszenatoki handi bat bezala egikaritzen duen instalazio bakar bat da, zeinak produkzioa erantsi



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

1990. urtetik gaur arte egindako obren bilduma zabalena da Badiolak Arte Eder museoan aurkeztu duena.

eta obrei modu narratibo berri bat ematen dien. *Eite txarrak*, artistaren hitzetan, «osatu gabea, akastuna, gabeziaduna eta aldi berean oparoa eta gainezkatua» da, eta ikuslea kodez beteriko paisaia batean barnertzen du.

Eite txarreko erakusketa bat

Eite txarrak erakusketa gune bakarrean gauzatzen da. Gune horretan *Bañilandia*, *Los rusos*, *Bastardos* eta *Una* bildumetako piezak agertzen dira.

Kontraeskultura hauek lurralde sinbolikoak aipatu eta miagarriak diren elementu tematikoak erakusten dituzte. Horien artean, Malevitxen modeloak, Jacobs-en aulkiak, Badiolak 16 urte zituela jotzen zuen rock talde baten irudiak, edo borroka armatu baten ondorioa jasotzen duen irudi eskematikoa aurki daitezke.

Erakusketak egitura hibrido batekin jarraitzen du. Egitura honek, eskultura, eszenografia, arkitektura eta enbalaketa artean dauden zenbait obra biltzen ditu. Obra horien buru bezala, Malevitxen *Lauki beltza* zuzenean aipatzen duen pantaila beltz bat dago. Pantaila horren alde



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Erakusketa 2003ko urtarrilaren 26a bitarte izango da zabalik.

zurian, Inazio Eskuderok birnahastutako Badiolaren bideo sorta bat proiektatzen da.

Egitura horretatik, txikiagoak diren beste egitura batzuk erartortzen dira; espazioaren erdigunea betetzen duten zatien konstelazioa balitz moduan. Bitartean, aretoko hormak *Vida*

cotidiana, *La guerra ha terminado* eta *Ciudad de nadie* bezalako argazki lanek estaltzen dituzte.

Azkenik, *SOS* aurkezten da. *SOSek*, artistak egindako azken lan multimediatikoak biltzen ditu. Lau instalaziotan egitura-tutako nahasketa bat da bilduma multimediatiko hori. Horie-

tatik hiru, pabiloi moduan erabiliko dira; laugarrena bideo-proiekzio bat izango da.

Bartzelonan egindako erakusketa zabalik zen garaian, Badiola ikuskizun horren egitura erabiliz, *Eite txarrak* bideoa egiten hasi zen, eta egun Bilboko erakusketan bideoa ikusgai dago.